

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko maiatzaren 8tik 14rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/13

- **HITZARMEN KOLEKTIBOA.** – Ebazpena, 2021eko apirilaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratu eta argitaratzen den Aurrezki-kutxen eta finantza-entitateen Hitzarmen Kolektiboaren 39.1.h artikulua aldatzeko Erabakia. **7945 xedapena - 3 or.**

2021/05/14

- **Lan hitzarmen kolektiboak.** – Ebazpena, 2021eko apirilaren 26koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratu eta argitaratzen den Sukaldaritza kolektiboaren sektorearen estatuko Hitzarmen Kolektiboa 2020. eta 2021. urteetarako. **8007 xedapena - 174 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/08

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** – Akats-zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 8/2021 Errege Lege-dekretua, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen diren osasunaren, gizartearen eta jurisdikzioaren alorretan, alarma-egoeraren indarraldia amaitzean aplikatzeko, zeina urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarri zen, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. **7657 xedapena - 1 or.**

2021/05/10

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Produktu fitosanitarioak.** - 285/2021 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, produktu fitosanitarioak biltegitratzeko, merkaturatzeko, inportatzeko edo esportatzeko, kontrol ofizialerako eta produktu fitosanitarioekiko saiakuntzak egiteko baimenen baldintzak ezartzen dituen, eta produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduketa-esparrua ezartzen

duen irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretua aldatzen duena. 7689 xedapena - 26 or.

2021/05/11

- **BARNE MINISTERIOA. - Mugak. - INT/448/2021** Agindua, maiatzaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen den INT/657/2020 Agindua, uztailaren 17koa, zeinak irizpideak aldatzen dituen nahitaezkoak ez diren bidaia aldi batez murrizteko hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen akordioa beste herrialdeetara, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko ordena publiko eta osasun publikoko arrazoiengatik. 7760 xedapena - 2 or.

2021/05/12

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Langileen Estatutua. - 9/2021** Errege Lege-dekretua, maiatzaren 11koa, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina aldatzen duena, plataforma digitalen esparruan banaketan diharduten pertsonen lan-eskubideak bermatzeko. 7840 xedapena - 6 or.
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Estatuko Aldizkari Ofiziala. - 327/2021** Errege Dekretua, maiatzaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen den "Estatuko Aldizkari Ofiziala" aldizkari ofiziala antolatzeko otsailaren 8ko 181/2008 Errege Dekretua, Ediktu Taula Judizial Bakarrera egokitzeko. 7843 xedapena - 10 or.

2021/05/13

- **EKONOMIA GAIEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. - Abalak. - Ebazpena,** 2021eko maiatzaren 12koa, Ekonomia eta Enpresa Babesteko Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2021eko maiatzaren 11ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia, finantziario abalatua duten bezeroentzako birnegoziario esparruko Jardunbide Onen Kodea onesten duena, zeina COVID-19aren pandemiari aurre egiteko enpresa kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuan aurreikusi zen. 7908 xedapena - 15 or.
- **EKONOMIA GAIEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. - Abalak. - Ebazpena,** 2021eko maiatzaren 12koa, Ekonomia eta Enpresa Babesteko Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2021eko maiatzaren 11ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia. Horren bidez, martxoaren 17ko 8/2020 eta uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-dekretuek araututako abalen

eskaera-epea luzatzen da eta baldintzak egokitzen dira, eta martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren 16. artikuluan ezarritako abal exekutatuaren kobrantza-erregimena garatzen da. **7909 xedapena - 6 or.**

2021/05/14

- **EKONOMIA GAIEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. - Zerbitzu elektronikoak.** - ETD/465/2021 Agindua, maiatzaren 6koa, ziurtagiri elektroniko kualifikatuak emateko bideo bidezko urruneko identifikazio-metodoak arautzen dituen. **7966 xedapena - 9 or**
- **OSASUN MINISTERIOA. - Osasun neurriak.** - SND/466/2021 Agindua, maiatzaren 13koa, zeinaren bidez luzatzen den SND/413/2021 Agindua, apirilaren 27koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiak irauten duen bitartean Indiako Errepublikatik Espainiara datozen pertsonen bete beharreko berrogeialdi-baldintzei buruzkoa. **7967 xedapena - 3 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/05/08

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LEHENDAKARITZA.** - 23/2021 DEKRETUA, maiatzaren 7koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa. **2603 xedapena - 12 or.**

2021/05/10

- **XEDAPEN OROKORRAK. - GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.** - 133/2021 DEKRETUA, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen baitira. **2604 xedapena - 18 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/11

- **Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa. - Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 847/2021 FORU AGINDUA, maiatzaren 5koa, zeinaren bidez eredu hauek onesten baitira: plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuei buruzko informazioa aitortzeko 234 eredua; mugaz gaindiko mekanismo komertzializagarri jakin batzuen eguneratzeari

buruzko informazioa aitortzeko 235 eredia, eta plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuen erabilerari buruzko informazioa aitortzeko 236 eredia (akats zuzenketa). **I-397 xedapena - 19 or.**

- **Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa. - Ekonomia Sustatzeko Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 57/2021 FORU DEKRETUA, maiatzaren 4koa. Honen bidez, 2021eko Suspertze Adimentsua dirulaguntza programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onesten dira. Oker zuzenketa. **I-398 xedapena - 22 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/05/10

- **ERREGELAMENDUAK.** – Batzordearen 2021/756 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2021eko martxoaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen den 1234/2008 (EE) Erregelamendua, gizakiek erabiltzeko sendagaiak eta albaitaritzako sendagaiak merkaturatzeko baimenen baldintzen aldaketen azterketari buruzkoa. (Testu egokia EEErako). C/2021/1603. **L 162/1 xedapena - 3 or.**

2021/05/12

- **ERREGELAMENDUAK.** – Kontseiluaren 2021/774 (EB) Erregelamendua, 2021eko maiatzaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen den 389/2012 (EB) Erregelamendua, zerga berezien esparruko administrazio lankidetzari buruzkoa, erregistro elektronikoen edukiari dagokionez. **L 167/1 xedapena - 2 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO